



## OSTATU MAHAIA / MESA DE ALOJAMIENTO

2021eko urtarrilaren 18a

### GAI-ZERRENDA:

1. Agurrak eta mahaikideen aurkezpena.
2. Eredua azaltzea [2021 01 18 Ostatu Mahaia aurkezpena.ppt](#)
  - a. Helburuak eta funtzioak.
  - b. Hartzeke dauden akordioak ikuskatzea; Enpresen Kontsulta Foroa: lehentasuneko proiektuen zerrenda 2020.
  - c. Egungo sektorearen egoera aztertzea.
  - d. 2021eko jarduketa-proposamena.
  - e. Hurrengo urratsak.
  - f. Galderak eta iradokizunak.

### PARTAIDEAK: (% 80)

DEITUTAKOAK		PARTAIDEAK	EZ-EGOTEAK	
			Arrazoia emanda	Arrazoia eman gabe
Ostalaritzaren sektoreko arduraduna eta Neguri hotela	Javier Angulo	X		
Embarcadero hotela	Barbara Anasagasti			X
Los Tamarises hotela	Karmele Abarrategui		X	
Igeretxe hotela	Nagore Saiz	X		
Artaza hotela	Joseba Oribe	X		
Areeta pentsioa	Jose Miguel Pérez	X		
El Abra pentsioa		X		
Basagoiti pentsioa	Mikel Valdés	X		
Getxoko Udala - Ekonomia Sustapen Arloa	Mirene Zabalgogezkoa	X		
	Sonia Urdiain	X		



## EDUKIAK:

1. Bertaratuak agurtu eta aurkeztu dira.
2. Oroitzeko, eta lehenengoz azaldu diren kideak daudenez, udal-teknikariak laburki azaldu dituzte mahaien, kontsulta-foroaren eta alderaketa politikorako mahaiaren helburuak, funtzioak eta komunikazioa.
3. Hartzeke dauden akordioak ikuskatzea.
  - 3.1. Protokoloa aztertzea, finantzabideak lortzeko laguntza emateko aukera. Sektorerako kreditu-lerro, laguntza eta dirulaguntzei dagokienez, Ekonomia Sustapen Arloak herri administrazioen jarduketari buruzko informazio puntuala eman du. Era berean, aholkularitza-zerbitzua gogorarazi du, horiek aztertu eta eskatzeko lagungarria izan daitekeelakoan. Edozein enpresak laguntza berezia behar izanez gero, balioetsiko da.
  - 3.2. Turismoa sustatzeko kanpainen intentsitatea eta hartzaileak areagotzea. 2021. urtean ostatu-eskaintza nabarmentzen jarraituko da, komunikazioa mugikortasun-murrizketetara egokituko da, eta beste jatorri batzuetako turista eta bisitariak ez dira ahaztuko. 2021ean aurrekontua dago eta ohiz kanpoko partidetatik gehiago egon liteke (zehaztasun gehiago erantsitako aurkezpen-agirian).
  - 3.3. Sustapen-kanpainetan ostatu-establezimenduei buruz berariazko informazioa ezartzea. Nahiz eta sektoreak ez ikusi, 2020. urtean dagoeneko egin zen, eta 2021. urtean zeregin horretan jarraituko da.
  - 3.4. Udalaren zergak eta tasak gutxitzea eta/edo horien ordainketa malgutzea. Bere egunean eskatu zen. Orain arte emaitzarik gabe.
4. Sektorearen egoera.
  - 4.1. Bertaratutakoek egungo egoera azaltzea: turismoaren sektorean eta, bereziki, ostatuaren eremuan, egoera kritikoa da eta guztiak ados daude horrekin:
    - ✓ Bi establezimenduk itxi dute: batek irailean eta besteak Pilar zubian; nolana ere, guztizko gutxi beherako eskaintzaren gainean % 40 da. Honako hauek, ordea, irekita daude:
      - Ostalaritza-zerbitzuak dituzten hotelak. Azkenekoak enpresaren negozio nagusia dira eta beharrezkoa denean, ostalaritzako langileekin ematen diote arreta hotelari. Ildo horri eutsiz, euren ustez, arretaren kalitatea eta zerbitzua jaitsi dituzte, ezin dituztelako langileak mantendu.
      - Pentsioak, araudiz ez baitute harrera-zerbitzurik eman behar eta eskearen arabera erantzuten baitute.



# Getxo

*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

- ✓ Uda okupazio tasa baxuak; asteko egun gehienetan hutsak.
- ✓ Uda arte gauza handiegirik ezingo da egin eta orduan ere zalantzekin.
- ✓ Horrez gain, COVIDaren aurka sektoreak, batik bat ostalaritza-zerbitzuei lotuta, bete behar dituen neurri osagarrien inguruan bezeroekin hainbat gorabehera izan dituzte, bezeroak ez baitaude ados.

#### 4.2.- Hobekuntza-proposamenak eta/edo proiektuak:

- 1º Ostatuaren sektoreari zuzeneko laguntzak. Presazkoak dira pandemiak dirauen bitartean eta gutxienez Estatuan mugikortasuna ezartzen den artean bizirik irauteko; merkatu hori izan gabe, ostatu-establezimenduek ez baitute gutxienerako errentagarritasun-atalasea. Ezinbestekoak dira zuzeneko laguntzak gastu finakoak ordaintzeko.
- 2º Digitalizaziorako laguntzak, 24 orduz langileen gastuak ekiditeko (bezeroak urrunetik erregistratzea ahalbidetzen duen softwarea, geletan mugikorra erabiliz sartzea...).
- 3º Araudia malgutzea, langileen kostu finakoak (ordainsariak, gizarte-segurantzak, etab.) gutxitzeko. Nolanahi ere, hotelek egunero 24 orduz harrera eman behar dute.
- 4º Ostatu-gauak sustatzeko kanpaina lantzea, mugikortasuna egon bezain laster abiarazteko, nahiz eta mugikortasun hori gertukoa izan, eta horretarako, deskontuak bultzatzea (adib.: Guggenheim museoko sarrerak, udalerriko jatetxeetan menuak...).
- 5º Zergak eta tasak:
  - Zaborraren udal-tasak: negozioa itxita badago edo gutxienerakoekin funtzionatzen ari bada, kentzea.
  - OHZ: eraikin, lokal edo, orokorrean, establezimenduetako jabeentzat, kendu ala jaisteko errentak ordaintzea negoziatzen badute, OHZ murriztu edo deuseztatzea.
- 6º Getxoko eta inguruko enpresen artean ostatu-gauen zerbitzuak lortzeko kanpaina diseinatzea; mailing ala sustapen bereziren bat egitea, ostatu-beharrak dituzten pertsonak hartuz gero, Getxo hautatzeko eta prezio berdinarekin hoteletan "hobekuntza-motaren" bat eskaintzea; bestela, gastuen zati bat diruz laguntzea. (Erref.: 2009. urtean Eusko Jaurlaritzaren laguntza-kanpaina;



# Getxo

*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

<https://www.diariovasco.com/20091016/al-dia-local/hoteles-vascos-haran-descuentos-20091016.html> )

7º Laguntza eta dirulaguntzei buruzko aholkularitza-zerbitzua pertsonalizatzea, aholkulariak negozio bakoitzerako egokiak diren laguntzak bila ditzan eta izapidetzen lagun diezaien.

Lehentasunak ezarri behar badira, 2021. urtean plan berrietara, marketin eta publizitatean inbertitzera, eta turismoaren arloan edozein gastutara bideratutako aurrekontu guztia erabiliko lukete ostatu-establezimenduei zuzeneko laguntzak abian jartzeko (1. eta 2. puntuak).

## 5.- OSTATU MAHAIAREN AKORDIOAK (2021/01/18):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Aktaren zirriborroa bidaltzea.	Udal teknikariak	2021-01-18
2. Ostatu-establezimenduei laguntzeko zuzeneko laguntzen eskaera helaraztea.	Udal teknikariak	Bileraren egunetik aurrera
3. Harrera-zerbitzuen inguruan araudia malgutzeari buruz sektoreak adierazitako beharra administrazio arduradunari helaraztea.	Udal teknikariak	Bileraren egunetik aurrera
4. Ostatu-gauak bultzatzeko kanpaina lantzea, nahiz eta gertukoa izan, mugikortasuna egon bezain laster abiarazteko, eta funtzionatzen duten deskontu erakargarriak sustatzea, hala nola Guggenheim museoko sarrerak, udalerriko jatetxeetan menuak...	Udal teknikariak	Bileraren egunetik aurrera
5. Udal zerga eta tasen kasuan, berriz ere gutxienekora murrizteko edo deuseztatzeko berriz eskatzea.	Udal teknikariak	Bileraren egunetik aurrera
6. Getxo eta inguruko enpresen artean ostatu-gauen zerbitzuak lortzeko kanpaina diseinatzea; mailing edo sustapen bereziren bat egitea, ostatu-beharrak dituzten pertsonak jasotzen	Udal teknikariak	Bileraren egunetik aurrera



# Getxo

*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

<p>dituztenek, Getxo aukeratzeko; eta, gainera, hoteletan prezio berdinarekin “hobekuntzaren” bat ematea edo gastuaren zati bat diruz laguntzea...</p>		
<p>7. Laguntza eta dirulaguntzei buruzko aholkularitza-zerbitzua pertsonalizatzea, aholkulariak negozio bakoitzerako laguntza egokiak aurkitu ondoren, izapidetzen lagun diezaien.</p>	<p>Udal teknikariak</p>	<p>Bileraren egunetik aurrera</p>